ASTEKARIA | 2017ko ekainaren 2an | XX. urtea | USURBIL | 701. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua



“Euskal Sagardoa” Zumeta Estudioan aurkeztuko dute

Ostiral honetan Santuenean, “Tomaxen abentura berriak”

Ingemar, kinka larrian

## Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan,

# ogibide bat ikasteko aukera


Noaoa
BIDAIAK
Lasartetik irteera
Noaoaren laguntzarekin
POLONIA
Abuztuaren 29tik
irailak 5 arte
DITGESTION Taldeko agentzia
943 373 613
info@noaoa.eus
www.noaoa.eus
Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria


FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:
·GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:
·HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
·HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ
ESKAERA EGITEKO AZKEN EGUNA, EKAINAK 16!
(Izapide guztiak egiten ditugu: Osasun Saileko baimenak, Udala,
Erregistro Zibila, osasun-garraioa errauts-labera edo beste hilerri batera...)
OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)
943 36 21 63 (24H)
AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE
· BEILATOKI GUZTIAK · ERRAUSKETAK
· EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...) HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA


ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
2 etxebizitza gelditzen dira!
AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# Bukatu dira Galtzaragainako urbanizazio lanak

Galtzaragainako plaza berritu eta bertako aparkalekuko inpermeabilizazio lanak bukatu berri dituzte. Udalaren eta bizilagunen artean adostutako obra hauei esker, Udalak kanpoaldeko urbanizazioaren eremu handi baten zorua aldatu, zenbait ekipamendu jarri (jardinerak, aulkiak, argiteria...) edota ubideak berritu ditu, esaterako. Bizilagunek, berriz, aparkaleku pribatuetako inpermeabilizazio lanen kostuak bere gain hartu dituzte, egon zitezkeen ur filtrazioak desagertaraziz.

Udal ordezkarien aburuz, "lan hauetan Bizkarreko plazako obretan izan genuen filosofia berbera jarraitu dugu, hau da: herritarren eta Udalaren artean adostasun batera heldu gara kostuak banatu eta bakoitzak hainbat hobekuntza egin ditzan". 2017 eta 2018 urteetan zehar banatuko da 138.000 euroko inbertsioa.



**Bizkarreko plazan egin bezalaxe, auzotarrak eta Udala adostasun batera heldu dira kostuak banatu eta bakoitzak hainbat hobekuntza egin ditzan.**

## Laburrean

### Ibai Arrietaren diseinua izango du jai egitarauak

Usurbilgo jaietako ekitaldiak iragarriko dizkigun egitaraurako diseinua hautatua dago jada. Jai Batzordeak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko txapelketa Ibai Arrietak irabazi du. Udalak ekaina amaieran banatuko du jaietako egitaraua.

### Hurbilagok jaurtiko du jaietako txupinazoa

Usurbilgo ostalari eta merkatarien elkarteak izango du festei ekiteko ohorea aurten. Ekainaren 29an udaletxeko balkoitik jaurtiko dute jaien hasierako txupinazoa. Herritarren proposamenak jaso ondoren hartu du erabaki hau Jai Batzordeak.

### Jai Batzordearen azken bilera, ekainaren 13an

Usurbilgo festen antolaketa lanak borobiltzeko azken bilera deitu du Jai Batzordeak, ekainaren 13rako, asteartea. Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Bilera irekia izango da herritar nahiz eragileentzat.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Jon Galbete, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Luis Aranalde

# Bale urdinaren apustua

Europan behintzat modan jartzen ari da gaztetxoen artean bale urdinaren apustua. 130 nerabek beren buruaz beste egin dute Europan zehar joko makabro horri jarraituz. Gipuzkoan ere kezkatzen hasi dira zenbait psikologo, irakasle eta guraso; hain zuzen Durangon eta Errenterian agertu dira joko honetan parte hartzen duten zenbait nerabe.

Zergatik deitzen zaio bale urdina eta zertan datza? Legenda batean oinarritzen da: kontu horren arabera bale urdinek beren buruaz beste egiten omen dute apropos hondartuta. Horregatik gaztetxo hauek bale urdinaren irudia tatuatzen dute beren gorputzean. Joko makabrora eta suizidiora daraman hau apustu bat da aldi berean: egunero erronka bat gainditu behar da; guztira berrogeita hamar dira. Azkenengoa bere buruaz beste egitea. Joko birtual horretan laguntzaile edo zaintzaile bat izaten dute pausoz pauso gaztetxoa gidatzen duena. Beldurtzen bada eta atera nahi badu, ezin du. Sekulako mehatxuak egiten dizkio zaintzaileak. Sekta batek bezala funtzionatzen du: nortasuna guztiz kentzen dio jokalariari; maisuaren jostailu bihurtzen da azkenean.

Hasierako erronkak nahiko suabeak dira, baina gero eta arriskutsuagoak eta gogorragoak gainditu behar ditu dinamika horretan sartu den gaztetxoak. Suizidioan bukatu arte.

Joko madarikatu hau errusiar batek sortu zuen, Philipp Budeikinek hain zuzen. Atxilotuta dago gaztetxoak suizidiora bultzatzeagatik. Psikologia estudiatu zuen hiru urtez, baina bidali egin zuten ikasketa zentro horretatik sozialki oso gatazkatsua zelako. Bere gurasoekin harreman oso zailak izan ditu beti. Lagunik ez du. Gero eta bakartiagoa; bere neska lagunak tren azpira bota zuen bere burua. Mespretxua besterik ez die bere joko horretan sartzen direnei: “hondakin biologikoak” omen dira eta bere helburua da “gizartea garbitzea”. Hala ere maitasun karta piloa bidaltzen omen diote nerabeek.

Zerk esplika dezake zentzugabekeria makur hau? Nolatan erortzen dira joko horren atzaparretan? Zergatik du erakartasun hori? Psikoterapiako Institutu bateko zuzendariak dioenez, esperientzia handiko psikologoengan oinarritu zen errusiar zoro hori. Berez, heriotzaren misterioak imana bailitzan erakartzen ditu gaztetxoak; are gehiago arazo psikologiko serioren bat baldin badute.

Gaztetxo hauen perfila oso ondo definitua dago adinari dagokionez: 12tik 16 urtetara. Hain garbi ez dagoena da zerk bultzatzen dituen pauso hori ematera. Batzuen ustez kuriositatea izan daiteke; aldez aurretik depresio arazoak izan dituzte agian; autoestimu gutxi; arriskuaren zentzurik ez… Zalantzarik ez dago nortasun normal samarra duen gaztetxoa ez dela sartzen joko horretan.

Dena den, psikologoen ustez guraso orok erne egon behar du eta ondo aholkatu nerabea Interneti buruz. Sare sozialek halako indarra eta erresonantzia dute… Zerbait publikatu eta milioika pertsona jakinaren gainean jartzen dira berehala.

Zein da antidotoa? EHUko irakaslea den Iñigo Ochoa de Aldak dio garrantzitsuena dela haurraren emozioen hezkuntza zaintzea. Gazte bat zoriontsu izango da haurtzaroan ondo zaindua eta maitatua sentitu bada. Bestetik, asteburu honetan Espainiako 3.000 sendagilek kongresu bat egin dute Donostian, eta beste gai batzuekin batera, gazteen artean dauden depresio kasuen ugaritze larria aztertu dute. Mediku aditu batek zioen: ”gazteak aberastasunean, bat-batekotasunean eta kapritxoan hezten ditugun bitartean giza baloreetan hezi beharrean, depresio kasuek ugaritzen jarraituko dute”.

Dirudienez, bale urdinaren jokoaren aurka talde batzuk hasi dira sare sozialetan, Facebooken hain zuzen ere. Erronka sail berri bat sortu dute eta “the pink whale challenge” (bale arrosaren apustua) deitu diote. Egun batzuk irauten du eta helburu du maitasuna, esku zabaltasuna eta zoriontasuna lantzea. Inor suizidiora bultzatzea baino interesgarriagoa da, bai, bizitza arrosa kolorez eta begirada positiboz ikusten saiatzea.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Luis Aranalde** | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

**Ika-mika**

# Amestutako bidaia: Elx (Elche)

Hasteko, eskertu Usurbil Kirol Elkarteari hainbesteko lana egiteagatik eskubaloia bultzatu nahian gure herrian.

Guraso talde bat izan gara han bertan gure jokalariekin, bai babesten eta animatzen gure taldeari. Han izan garenok bakarrik dakigu zer ikusi dugun eta nola pasatu dugun aste bukaera hortan, ez zaigu inoiz ahaztuko bizi izan duguna, bai gurasoek eta jokalariek. Talde honek egin duena ez da edozer gauza, talde apala, lagun artekoa baina lanarekin, fedearekin eta konpromisoarekin noraino iristea dagoen, eta datorren urtean gelditzen dena ikusteko. Eskerrik asko taldeari, gurasoen partetik.

Bukatu nahi dut jokalarien bigarren gurasoekin, hau da, “staff teknikoarekin”. Eskerrik asko, Jon Aizpurua, Mikel Orena, Andoni Zubeldia eta Joxe Lontxo Manzanori pertsonak eta kirolariak izaten gure mutilei. Eta amaitzeko taldeari mezu bat: hobetu behar da defentsa hori!!

**Joxe Ramon Goenaga**

# Astelehenean zabalduko da Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzeko epea


Ile–apainketa eta estetika arloaren ingurukoa da ziklo bat.


Sukaldaritza eta jatetxe arloari lotuta dago beste zikloa.

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan laster izango da aurre-matrikula osatzeko garaia. Ekainaren 5etik 16ra luzatuko da epea. Ohi bezala, bi izango dira eskainiko diren zikloak: Ile–apainketa eta Estetika arlokoa batetik; Sukaldaritza eta Jatetxe arlokoa bestetik.

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan sartzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:
■ 15–17 urte arteko gaztea izatea.
■ DBH 3 egina izatea edo salbuespen modura DBH 2 egina izatea.

## Moduluak

Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa zikloek honako lanbide-modulu hauek dituzte:
A) Lanbide moduluak: Ezagutza-esparru teoriko-praktikoz osaturikoak, ikasleek gaitasun profesionalak eskuratzeko xedea dutenak.

B) Eduki–bloke komunei loturiko moduluak:
Gaitasun pertsonalak eta sozialak eta bizitzan zeharreko ikaskuntza etengabearen gaitasunak eskuratzea bermatuko dutenak. Bi hauek dira:
- Komunikazioa eta Gizartea modulua.
- Zientzia Aplikatuak moduluak.

C) Lantokiko prestakuntza modulua.

## Zikloak, bi urtekoak

Zikloak bi urte irauten ditu: 2.000 ordu, guztira.
■ Lehenengo ikasturtea (2017–2018 ): 990 ordu.
■ Bigarren ikasturtea (2018–2019): 750 ordu gehi praktikak eskualdeko enpresetan. 260 ordu. Guztira, 1.010 ordu.

## Lan munduan murgiltzeko aukera

Zikloa amaitzerakoan ikasleak jasotzen dituzten emaitzak hauek dira:
■ Titulua: Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat gainditzen duten ikasleek dagokion oinarrizko lanbide titulua jasotzen dute.
■ Lan munduratzea: Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko 1. mailako lanbide kualifikazio oso baten gaitasun unitateak hartzen ditu barne.
■ Erdi Mailara sarbide zuzena: Oinarrizko lanbide tituluak hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako Erdi Mailako heziketa-zikloetan sartzeko aukera luzatzen zaie.

## Oinarrizko Lanbide Heziketa

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren barnean dago. “Arautua da. Publikoa eta doakoa. Eta, Zubietako Lanbide Eskolari atxikitua dago”.

## Eskola bisitatzeko, edo informazio gehiago jasotzeko:

Eskola bisitatzeko eta aurrematrikula egiteko helbide honetara zuzendu:

**Eskolaren helbidea:**
Atallu. Zanpiura, 3
20170 Usurbil
Telefonoa: 943 36 04 65
Posta elektronikoa:
lhi@usurbil.eus









# Ingemar itxi nahi duen edo ez argitzea eskatu diote langileek Kutxabanki

Kutxabankek Ingemar itxi nahi ote duen edo ez argi dezala eskatu zioten Ingemarreko langileek, maiatzaren 26an aipatu bankuak Donostiako Garibai kalean duen egoitza atarian egin zuten agerraldian.

Argi hitz egin dezala eta “esandako asmoa egiazkoa izatekotan zuzentzeko” galdegiten diote langileek. Eskaerok biltzen zituen idatzia aurkeztu zuen prentsaurrekoaren amaieran Langileen Batzordeak, Kutxako egoitza barruan.

“Hainbat informazioren arabera, Kutxabank erakundea, konkurtsoko hartzekoduna denez, estutzen ari da Usurbilgo plantila osoarentzako amaierako EEE bat irekitzeko, enpresaren jabetzako lursailak bereganatu eta etxegintza-arloko diru-jana egiteko”, berri eman zuten prentsaurrekoan.

Informazio hau egia bada, Ingemarreko langileen esanetan, “ondorioa guztiz larria izango da, euskal kutxen bankarizaziotik eratorria. Ez da onargarria, Ingemar lantegiko 75 langileak beren lanposten aldeko borrokan dauden bitartean, Kutxabank azpijokoan aritzea, enpresarekin bat eginez, langileak kalean uzteko, espekulazio-interesengatik”.

Azalpenak ematea eskatzen dizkiete bankarizazioaren alde agerturiko alderdi politiko eta erakundeei, “Kutxabanken sustraien faltari buruz, eta ekoizpen-sarearekiko eta enpleguarekiko konpromisorik ezari buruz”. Eragile politiko eta erakundeok enpresaren asmoetara lerratzen badira, “haiei ere aurre egingo diegu, gure interesen kontra ari baitira”, iragarri dute langileek.




**Astelehen, asteazken eta ostiralero ordubetez mobilizatuko dira Kutxabankek Donostiako Garibai kalean duen egoitza atarian.**

LANGILEAK

***“Kutxabank konkurtsoko hartzekoduna denez, estutzen ari da Usurbilgo plantila osoarentzako amaierako EEE bat irekitzeko, enpresaren jabetzako lursailak bereganatu eta etxegintza arloko diru-jana egiteko”***

## Elkarretaratzeak astean hirutan

Maiatzaren 31tik aurrera, astelehen, asteazken eta ostiraletan eguerdiko 11:00ak eta 12:00ak artean mobilizatuko dira agerraldi lekuan bertan, Kutxabankek Donostiako Garibai kalean duen egoitza atarian. Aurreko ostiralean bezala, “Kutxabank Ingemar ez itxi” aldarripean mobilizatuko dira.

Gogoan izan, Ingemarreko langileen etorkizuna kinka larrian dago. Ingemar talde osoa, hartzekodunen lehiaketan dago urte hasieratik.

# Errigorako kontserben bila pasa zaitezkete

Joan den martxoan Nafarroa hegoaldean ekoitzitako kontserbak eskatu zenituztenok, ostegun eta ostiral honetan, ekainaren 1 eta 2an jaso ahalko dituzue NOAUA!ko egoitzan. Produktuak jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak.

Errigoratik berri eman dutenez, konponezina den arazo bat sortu da, era berean “zorionekoa”. “Aurtengo zainzuri kanpaina konplikatua izan da eta ez dago Nafarroa hegoalde guztian, bildu dugun zainzuri ekologiko eskaria asetzerik. 17.000 bat pote behar ditugu eta 7.000 inguru baino ez dugu”. Honenbestez, zainzuri ekologikoak eskatu dituzuenon eskaria ezin izango da ase oraingoan. “Auzolan erraldoi honen muga eta aukera berrien adierazgarri da! Lan ederra izan da ekoiz–leekin batera egindakoa eskaintza ekologikoa ere zabaltzeko eta hurrengo urteetarako transizioko lurrak ere badira honezkero!”, iragarri dute ekimen honen sustatzaileek.

## UEU-ren udako jardunaldietako bat Usurbilen egingo da

Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroen baitan, “Euskara, generoa, jatorria, eta klasea gurutzatzen diren lekua” izeneko jardunaldia ospatuko da Usurbilen, uztailaren 13an eta 14an, Usurbilgo Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak eta Jakin Fundazioak elkarlanean antolatuta. Maiatzaren 22az geroztik zabalik dago matrikulazio epea.

Informazio gehiagorako: ueu.eus

## 2. Berdintasun Planaren aurkezpena

Usurbilgo Udala maiatzaren 30eko osoko ohiko bilkuran onartzekoa zen II. Berdintasun Plana. Egitasmo berria aurkezteko jendaurreko ekitaldia deitu dute, datorren astearterako, ekainak 6, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

## Gure Esku Dagoren ekitaldirako txartelak

Gure Esku Dago mugimenduak ekainaren 10erako 17:30etan Bilbon (Euskadi Plazatik Eliptika Plazara) deitu duen mobilizazio nazionalerako izen emateak zabalik segitzen du. Galdera ikur erraldoi bat osatu eta Herritarron Ituna aurkeztuko den hitzordurako konpromiso txartelak eta mosaikorako puxika 2 euroren truke eskura daitezke, Usurbilgo lan taldeak frontoi inguruan asteburuetan jarri ohi duen mahaian. Bilboko joan etorria egiteko autobus zerbitzua antolatzekotan da Usurbilgo Gure Esku dago. Informazio gehiago: gureeskudago.eus

# 'Euskal Sagardoa' dastatu eta Zumetaren koadro berriak ezagutzeko aukera paregabea

Sagardoa dastatzeko eman. Ez dago aurkez-pen egokiagorik egiterik. Datorren asteartean Zumetarenean egingo den saioa halakoxea izango da. "Sagardo ezberdinak dastatuko ditugu eta bakoitzaren ezaugarrien berri emango dugu", Unai Agirrek aditzera eman digunez.

**NOAUA! Aurkezpenetik eta dastaketatik izango du ekainaren 6ko ekitaldiak. Nolako saioa prestatu duzue?**

**Unai Agirre.** Euskal Sagardoa markaren aurkezpen ofiziala bezperan egingo da, ekainaren 5ean Albaolan (Pasaian). Eta biharamunean Usurbilen egongo gara, Zumeta Estudioan. Euskal Sagardoa zer den azalduko dugu eta datu nagusiak emango ditugu. Baina aurkezpen hau egitea proposatu zigutenean, egokiago iruditu zitzaigun dastaketa batekin lotzea. Hortaz, azalpenak emateaz gain, sagardo dastaketa bat egingo dugu Zumeta Estudioan.

**Animatzen direnek, beraz, jatorri izendapeneko sagardoa probatzeko aukera izango dute.**

Hori da. Neronek gidatuko dut sagardo dastaketa. Jatorrizko izendapeneko sagardo ezberdinak dastatuko ditugu eta bakoitzaren ezaugarrien berri emango dugu. Eta noski, jendearen zalantzak argitzeko tarterik ere izango da.




Ekainaren 6an asteartea, Euskal Sagardoa jatorrizko izendapenaren aurkezpena egingo dute Zumeta Arte Estudioan. Soilik autobusean joan daiteke bertara. Kale Nagusian, udaletxe azpiko geltokian hartu beharko da autobusa. 18:00etatik 19:00etara ibiliko da autobusa joan-etorrian.

UNAI AGIRRE

*"Euskal Sagardoaren izendapena urrats handia da. Baina ez zen helburu bat, abiapuntu bat baizik. Ondoren etorriko diren proiektuetarako abiapuntua izango da"*

**Izendapen honekin urrats handia eman du sagardoaren sektoreak, ezta?**

Euskal Sagardoaren izendapena urrats handia izan da. Bazen bertako sagarrez eginiko sagardoa zehazteko garaia. Baina izendapenarena ez zen helburu bat, abiapuntu bat baizik. Ondoren etorriko diren proiektuetarako abiapuntua.

Sagardogintzaren sektore barruan jende asko konbentzituta dago baina beste askori ere poliki-poliki transmititu behar diogu izendapenak duen garrantzia. Lan egiteko dinamika guztia aldatzen da. Bertako sagarraren alde egin behar da, kalitatearen alde egin behar da, beste diskurtso bat garatu behar dugu... Hau abiapuntu bat da eta ate gehiago irekiko dira honen atzetik.

**Apustu integrala da hau. Sagastiei eta basoei ere eragiten dielako, besteak beste.**

Bai, nolabait esatearren, guk dugun ondare guztia balioan jartzea ekarriko du. Gauza asko ditugu sagardoari lotuta: sagastiak, sagarrak, barietateak, lan egiteko modua, klima bat... Eta hori guztia balioan jartzeko ez dago bertako produktuekin lan egitea beste erremediorik. Ezin dugu hori guztia saldu eta gero sagarraren jatorria ez dakit nongoa izatea. Hemen, milaka urtetan bertako sagarra ekoiztu dugunean. Horregatik Euskal Sagardoa izendapena derrigorrezkoa da, sagardoa bere lekua eraman nahi dugu behintzat.

## Sagastiak Loretan

**Sagarrondotik sagardora ikastaroa Potxoenean**

- Ekainak 3 larunbata.
- Ordua: 9:00etik 13:00era.
- Udako kimaketari buruzko ikastaroa, Aitor Etxeandiaren eskutik.
- Izen ematea: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com

**Euskal Sagardoaren aurkezpena Zumeta Arte Estudioan**

- Ekainak 6 asteartea.
- Ordua: 19:00etan.
- Ezin da kotxez bertaratu. Autobus zerbitzua egongo da kaxkotik. 18:00etatik 19:00etara, Kale Nagusian Udaletxe azpiko bus geltokian. Saioa bukatutakoan, autobusak Kale Nagusian utziko ditu bidaiariak.
- Sagardo dastaketa eta mokadutxoa.
- Saioaren gidaria: Unai Agirre. Euskal Sagardoa izendapena duten sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da.
- Sagastiak Loretan ekitaldien baitan antolatutako saioa.









# Erraustegia geratu eta haren aurka mugitzeko deia

Erraustegiaren aurkako aldarrien erdigunean bilakatu zen Zubieta maiatzaren 27an, Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatu zituen ekitaldietan. Denetariko hitzorduak tartekatu zituzten.

Eguna hasteko hiru hitzaldi interesgarri Kaxkape egoitzan; Baserria XXI elkarteak errausketa eta nekazaritzari buruz eskainitakoa batetik. Sustrai Erakuntza Fundazioko kide Martin Zelaia, erraustegia alboratu duen Nafarroako Hondakinen Kudeaketa planaz aritu zen. Madril aldetik ere bisitariak izan genituen Zubietan. Valdemingomezeko erraustegi ondoan bizi dira Rivaseko bizilagunak. Erraustegiaren aurka osatu duten aliantzako kide Javier Navascuesek, bertan bideratzen ari diren lanketaren inguruko azalpenak eskaini zituen.

Plazan bertan bestalde, Errausketaren Aurkako Mugimendua laguntzeko postuak jarri zituzten, eta frontoian, 500 bat lagun batu zituen herri bazkari jendetsua ospatu zen.




Erraustegiaren Aurkako Eguneko ekitaldi zentrala eguerdi partean ospatu zen Zubietako plazan.

LARUNBATEAN ZUBIETAN

*“Ekitaldi ugari egin ziren eta 500 bat lagun batu ziren frontoian egin zen herri bazkarian”*

## “Gelditu ezazue”

Erraustegiaren Aurkako Eguneko ekitaldi zentrala eguerdi partean ospatu zen Zubietako plazan. Unai Gaztelumendi eta Asier Azpiroz bertsolariek abiaturiko hitzorduan, bi deialdi luzatu zituen Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Lehenengoa Gipuzkoako Foru Aldundian agintean diren alderdiei zuzendua. “Gelditu ezazue proiektua!”, eskatu zieten. Bigarrena, herritarrei. Urte luzez egin duten moduan, “mugitu gaitezen gipuzkoarrok!”, animatu zituzten. Urte luzez erraustegia eraiki nahian izan arren, gogorarazi zutenez, “oraindik eraiki gabe egotea... ez al da garaipen bat?”.

## Alternatibarik bada

Datozen 35 urteotan gipuzkoarren osasuna, ingurumena eta finantza publikoa kaltetuko duen erraustegi inposaturik ezin dutela onartu adierazi zuten, 2009az geroztik, erraustegia alboratu eta beharrezkoa egiten ez duen alternatiba garbiago, osasuntsuago eta merkeagoa abian dela gogoraraztearekin batera. “Orain nahitaezkoa da udalerri askok egin duten bideari beste guztiek ere jarraitzea”, azpimarratu zuten.

# Martxa arrakastatsua zero gunera

Jende askoren bizitzak inguratu zuen larunbatean, guztion osasuna, poltsikoak, eta ingurumena kaltetuko dituen Zubietako erraustegi eta makrokartzela eraikitzen ari diren zonaldea. Herri gunetik abiaturiko martxa antolatu zuen Gipuzkoa Zutik–ek, zulatua dagoen Zubieta gainera. Hitzordurako egoki asko mozorrotuta, errausketaren aurkako aldarria zero gunera bertara helarazi zuten. Bizitza erein zuten bertan; 300 hazi bola hain zuzen. Etengabekoak izan ziren errausketaren eta makrokartzelaren aurkako oihuak Zubieta gain hartan.

## “Bizitzarekin egingo diogu aurre”

“Zer dagoen eta zer ez” ikustea zen maiatzaren 27ko Gipuzkoa Zutiken martxaren helburua. Hala zioten antolatzaileek ibilaldia abiatu aurretik Zubietako plazan egin zuten agerraldian. “Hasi omen dituzte obrak edo ziri ederra sartu nahi izan digute eta antzerki ederra egiten hasi dira”, zioten.



Zubietako erraustegi eta makrokartzela eraikitzen ari diren zonaldea bisitatu zituzten arratsalde partean.

Martxa honekin, erraustegiaren punturik ahulena agerian utzi nahi izan zuten, alegia, “herritarrek ez dugula nahi, erraustegiak ez du inongo babesik”. Herritarren babesik ez izateaz gain, gipuzkoarron poltsiko, aire eta bizitza defendatzeko antolatu zuten martxa, “adierazteko lur hori guztiona dela eta guztiak zainduko eta defendatuko dugula. Haizea guztiona dela, eta guztiok zainduko eta defendatuko dugula. Erabiliko duten dirua, guztiona dela eta ez diegula oparituko. Eta bizitza, guztiona dela eta guztion artean gozatuko dugula”.

Duela urtebete oroitarazi bezala, erraustegia kapitalismoaren eta “ehuneko batak etekin ekonomiko izugarriak izateko, guztion bizitzaren gainetik edozer egiteko” sinboloa dela berretsi zuten. Aurrerantzean ere sinbolo horri aurre egiteko asmoa agertu zuten. “Bizitzarekin egingo diogu aurre proiektu hiltzaile horri”, eta iragarri zutenez, “prest gaude gaurko egunarekin beste fase bat hasteko, erraustegia egitea eragozteko”.


xarma
taberna
xarma
taberna
Ostegun honetan
zatoz
inaugurazioira!
Ekainak 1, osteguna
19:00etatik aurrera
Borda Berri kalea 3, Usurbil · 16:00etatik aurrera


Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera
udajolas
2017
Udajolaseko guraso bilera
ekainaren 8an (osteguna)
izango da Sutegin,
arratsaldeko 17.00etan
noaua


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
CIFP USURBIL LHII
✆ 943 36 46 00
www.lhusurbil.eus
Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduak
Administrazioa
Elektrizitate-elektronika
Fabrikazio mekanikoa
Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.
Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.
AURREMATRIKULA ekainaren 5etik 16ra

















**Errausketaren Aurkako Eguneko irudi gehiago www.noaua.eus web orriko Argazkitegian aurkituko dituzue.**












EZ ONARTU ERRAUSTEGIA


BIO
TERRA
2017
14. EDIZIOA
GONBIDAPENA
(12 urte arte doan)
Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka
2·3·4
Ekaina
FICOBA
IRUN
Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak • Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa • Osasun eta ongizate jasangarria • Yoga day • Bioterraza • Biobeauty Gunea • Show cooking • Haurrentzako aktibitateak • Zozketak...
EKO esperientzia bizi ezazu!
bioterra.ficoba.org
P
dohainik
Ficobara, za toz trenean!
euskotren
FICOBA




Klik! batean

# Agurraren lezioa

**Irrati taberna itxi dute. Bezeroekin ospatuz, bezeroei eskerrak emanez. Taberna bati agur esateko modu egokiagoarik ba ote al da.**

Argazkia: Ibai Arrieta


14:44

# Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar Buruntzaldean

Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina berria aurkeztu dute Buruntzaldeko udal eta autoeskolek. Aurreko urteen ildotik, eremu honetan ere euskararen erabilera sustatzeko ahaleginean jarraitu asmo dute. Iaz 96 lagunek atera zuten gidabaimena euskaraz. Gorantz doan kopuru hau haztea nahi dute kanpainako sustatzaileek.



Gidabaimena euskaraz prestatu eta gainditzen dutenen artean, zati teorikoa ordaintzeko gehienez 400 euroko 11 diru-sari zozketatuko dituzte.

2017 honetan zehar, Buruntzaldeko udalerriren batean erroldatua egon, eta gidabaimena euskaraz prestatu eta gainditzen dutenen artean, zati teorikoa ordaintzeko gehienez 400 euroko 11 diru-sari zozketatuko dituzte 2018ko urtarrilean. Udalerri bakoitzean dagoen autoeskola adina sari banatuko dituzte. Honenbestez, bi Andoainen, Astigarragan bat, Hernanin hiru, Lasarte-Orian bat, Urnietan bat eta Usurbilen beste bat. Kanpainari buruzko eskuorria jasoko dute laster, 2017an 18 urte bete dituzten Buruntzaldeko herritarrek.

Xehetasun gehiago, Buruntzaldeko autoeskolatan, udal Euskara Zerbitzuan edo buruntzaldea.eus web orrialdean.

# Haimar Zubeldiaren omenezko ekitaldia

Aurreko igandean, Zarauzko Zikloturista Elkarteak antolatuta, 600 bat lagunek hartu zuten parte Zarautz-Zarautz Klasikoan. Ondoren, Usurbilgo txirrindularia omendu zuten Zarauzko Lege Zaharren enparantzan. Txirrindulari gisa egin duen 20 urteko ibilbide profesionalaz gain, bere gizatasuna goraipatu zuten. Markel Irizarrekin batera Aspanogi elkartearen aldeko Mobibike Egunaren antolaketan parte hartzen du Urdaiaga auzoko txirrindulariak.




Txirrindularitza arloko jende ezagunak hartu zuen parte omenaldian. Argazkia: Ainara Lozano Lasa.

## Jaietako Pintura Lehiaketa

Sormena lantzeko aukera ederra eskaintzen du Usurbilgo jaietako XV. Pintura Lehiaketak. Aurten, festetako lehen egunean, txupinazo aurretik eta arratsaldez ospatuko da, ekainaren 29an, 16:30etatik aurrera frontoian. Jai Batzordeak jada erabaki du, 2-16 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko txapelketan parte hartu nahi dutenen sortze lanetarako gaia zein izango den: "Zein da zuretzat Usurbilgo zuhaitzik ederrena?". Hasi buruari eragiten.



Aurten, ekainaren 29an arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

## Udaberri Festan, dantzan

Ikasturte amaiera hurbiltzen ari dela nabari da. Festarako gogoa behintzat badutela erakutsi dute Zubietako Eskolako ikasleek aurreko astean ospatu zuten Udaberri Festaren baitan eskaini zuten dantza eta antzerki emanaldian. Jolasak, tailerrak, musika... denetarik tartekatu zuten, Zubietako Eskolako Guraso Elkarteak antolaturiko ekitaldietan.



Zubietako Eskolako Guraso Elkarteak antolatu du zikloa.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 USURBIL

# ERAIKUNTZA IKASTEKO AUKERA BERRITZAILEENA, LASARTE-ORIAN



Lanbide Heziketako ikastetxe berria, Lasarteko INEM ondoan dago kokatua

**Zer da EAGI?**
EAGI ikastetxe berri eta berritzailea da. Eraikuntza zikloak eskaintzen dituen Lanbide Heziketako ikastetxe publiko bat da. Era berean, eraikuntza arloko enpresen topagune bat ere bada. Irtenbide ezberdinak esperimentatzeko, harremanak estutzeko eta produktuak ezagutarazteko, besteak beste.

**Nondik EAGI izena?**
Eraikin Adimendunen Garapen Iraunkorra da ikastetxearen izen ofiziala. Izen honen oinarrian, bi zutabe nagusi daude; lehena, eraikitzeko teknika iraunkor eta eraginkorrak erabiltzea, Passivhaus deritzona; eta bigarrenik, berriz, erronketan oinarritutako lankidetza ikaskuntza, ETHAZI.

**Irakurleek informazio zehatzagoa izan dezaten, zer dira Passivhaus eta Ethazi?**
Passivhaus eraikuntza kontzeptu bat da. Efizientzia energetikoan emaitza paregabeak lortzen ditu, eta oso ikertua dagoen estandarra da. Etxe pasiboen helburu nagusia energia-kontsumo baxuarekin barrualdeko konfort maila handia lortzea da.
Ethazi, aldiz, formakuntza eredu bat da; erronketan eta elkarlanean oinarritzen den formakuntza uztartzen ditu. Ikasleak elkarlanean aritzen dira, eta proposatutako erronkak gaindituz ikasten dute. Etorkizuneko lanbiderako eta egunerokotasunerako beharrezko gaitasunak lortzea da helburu nagusia.
Formakuntza eredu honek, heziketa zikloaren gaitasunei bestelako dimentsio bat ematen die; lanbideak berak eskatzen dituen trebakuntzez gain, zeharkako gaitasunak lortzen baitira, hau da, ekintzaile izatea, diagnostikatzeko gaitasuna, talde lanean aritzea, estresa gobernatzea, eta ardurak hartzea beste zenbaiten artean.

**Zer eskaintzen diete metodologia berri honetan formakuntza jaso duten ikasleek enpresei?**
Enpresen eskakizunei erantzuten die metodologia berri honek. Jakintza teknikoa duten langileak ez ezik, arazoak gainditzeko eta bestelako baloreak dituzten langileak eskatzen dituzte enpresek. Hezkuntza proiektu berritzaile bat sortu dugu, eta horri esker, ia kontsumorik gabeko etxe txiki bat eraikiko dute, bi urtetan, gure ikasleek.

**Zein ikasketa ziklo egiteko aukera dago EAGIn?**
Erdi mailako bi ziklo eta goi mailako heziketa ziklo bat eskaintzen ditugu ikastetxean, eraikuntzaren arlokoak hiruak. Era berean, lanean ari direnentzat, zein langabezian daudenentzat formakuntza ere eskaintzen da.
Erdi mailako heziketa zikloak dekorazio eta akabera zikloa eta eraikuntza zikloa dira, eta goi mailako heziketa zikloa, berriz, obra enkargatua.

**Nori zuzenduta daude heziketa ziklo horiek?**
Erdi mailako zikloak egin ahal izateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitua duten hamasei urte edo gehiagoko pertsonei zuzenduak daude, eta goi mailako zikloa, erdi mailako ikasketak dituztenei, zein Batxilergoa amaituta dutenei zuzenduta dago.

**Zergatik ikasi eraikuntza?**
Krisi ekonomikoak gogor jo zuen eraikuntzaren sektorea, baina pixkanaka berpizten ari da. Azken urteetan, eraikuntza aldatzen ari da, eraikitzeko modu berri bat sortu da; ondo pentsatu eta egindako eraikuntzak eta eraberritzeak, efizienteagoak, osasuntsuagoak eta kontsumo baxukoak. Honetaz gain, Europatik datozen lege berriek diotenez, 2.020. urterako eraikuntza publiko guztiak ia kontsumorik gabekoak izan beharko dira.

**Krisiaren ondorioz, jendea animatzen al da eraikuntza ikastera?**
Azken urteotan oso ikasle gutxi izan dira eraikuntza ikasi dutenak. Betidanik sektore honetan lanean ari direnak ordea, ez daude gaur egungo merkatuak eskatzen duen teknika eraginkorrei aurre egiteko. Eraikin adimendunak eraikiko dituen profesionalen falta sumatzen da.



# LURRERA BOTATZEN DITUGUN POLTSA HAUEKIN, **BADAKIZU ZENBAT GAUZA LOR DEZAKEGUN?**

Erabili zakarrontzi horiak,
ez bota lurrera.

Etxean egiten duzuna,
kalean zergatik ez?

Herriak eta ingurugiroak
eskertuko dizu.

Erraustegirik ez!
Usurbilgo Udala
USURBIL



# Udarregi Ikastolari eskainitako astea

Ekainaren 10ean ospatuko den Ikastola Egunari begira, ekitaldiz jositako astea iragarri du Udarregi Ikastolak:

**Ekainaren 4ra arte**

■ "Kilometroak bidea erakusketa" Kilometroak jaiak 40 urteko bidea osatuko du laster. Tenore hau baliatuz Ikastolan Elkarteak prestatutako erakusketa ikusgai egongo da Sutegiko aretoan.

**Ekainak 3-6, larunbatetik asteartera**

■ Haur Eskolako haurrek egindako lanen erakusketa Oiardo Kiroldegiko harrera-tokian.

**Ekainak 5, astelehena**

■ 17:00 Ikastolako Bertso jaialdia (LH5 eta LH6) Udarregi ikastolako erdiko gelan. "Ikasturtero, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Programan barruan Bertso jaialdia eskaintzen dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek. Bikaina izaten da! Zatoz!".

**Ekainak 7, asteazkena**

■ 18:30 Kantagintza saioa HH 5. eta LH 5. mailako ikasleekin, Sutegiko auditoriumean.



**Aurten, ekainaren 10ean ospatuko du Udarregik bere egun handia.**

*ERAKUSKETA*

***"Ekainaren 3tik 6ra, Haur Eskolako haurrek egindako lanen erakusketa topatuko duzue Oiardo Kiroldegiko harrera tokian"***

**Ekainak 8, osteguna**

■ 18:30 Hezkuntza lege berriari buruzko hitzaldia Potxoenean.

■ Hizlariak: EHIko lehendakaria eta arduradunak.

■ "Hezkuntza-lege berriari buruzko hitzaldia. Hitzaldian hezkuntza-legearen garrantziaz eta EHIk duen iritziaz hitz egin eta informatuko da".

**Ekainak 9, ostirala**

■ 17:00 "Irudipuinak" ikuskizuna Irazu kaleko anfiteatroan (Eliza ondoko plazatxoa). "Emanaldi hau Mattin marrazkilari eta ilustratzaileak eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak osatzen dute. Bertan, zuzeneko marrazkiak ipuinekin uztartzen dituzte".

■ Oharra: euria bada, saioa Askatasuna plazan izango da.

■ Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan.

**Ekainak 10, larunbata**
**Udarregi Ikastolaren Eguna**

■ 09:30 Esnadeia.

■ 09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

■ 10:30-13:00 LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanen erakusketa Ikastola gorrian (Gernika Ibilbidea 11).

■ 12:00 HHko Haur Jaialdia Oiardo kiroldegian (Ateak 11:40ean irekiko dira, sarrera ate nagusitik izango da).

■ 14:00 Herri bazkaria eta bazkal ondorengo girotzea gurasoen eskutik frontoian.

**Ekainak 16, ostirala**

■ 12:30 Ikasleek beraiek prestatutako antzerki musikatua Sutegiko auditoriumean.

Antolatzaileak: Udarregi Ikastola, Hitz Aho Guraso Elkartea.

## Gaztelekua, udari begira

Hainbat irteera eta ekintza antolatu ditu Gaztelekuak uda parterako. Hasteko, larunbat honetan, ekainaren 3an, Gaztelekuko horma bat margotzeko aukera izango dute erabiltzaile talde guztiek. Argibide gehiago: gaztelekua@usurbil.eus/943 371 050.

## Ekainean arratsaldez zabalduko dute KzGunea

■ Ekainak 5-16, 16:00-18:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".

■ Ekainak 19-28, 16:00-18:00 "Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako".

■ Informazio gehiagorako:
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net
Kale Nagusia, 37

## Txertatu Merkatuan prestakuntza ikastaroa

■ Margoketa industrialean, bizikleta konponketan eta bestelakoetan doako prestakuntza jasotzeko aukera. Sustatzaileak: Beterri Buruntzako udalak.

■ 18-22 urte arteko gazteek izango dute lehentasuna. Langabetu eta goi mailako ikasketarik gabekoentzat ere zuzendua dago bereziki.

Informazio gehiago: 943 304 221
txertatumerkatuan@andoain.eus

## Ekainekoa izango da ikasturteko azken kultur agenda

Ekainekoa izango da Usurbilgo Udalak kaleratuko duen ikasturte honetako azken kultur agenda. Hurrengoa ez du uztailean ezta abuztuan ere argitaratuko, irailean baizik. Irailean ekitaldiren bat iragarri nahi baduzu bertan, uztailaren 26a baino lehen bidali informazioa kultura@usurbil.eus helbidera.

## DYAren ur-sorospen ikastaroa abiatzear

Ekainaren 3tik 25era, asteburuetan (larunbatetan 09:00-13:00/15:00-19:00; igandeetan 09:00-13:00) eskainiko dute ikastaroa, DYAk Munalurran duen egoitzan. Matrikulazioa: 220 euro.

Informazio gehiago eta izen ematea: 943 46 46 22 edo dyagipuzkoa.com web orrian. Plaza kopurua mugatua izango da.

# Aste honetan ireki da lorazain ofizial lanposturako izen ematea

Lorazain ofizial lanpostua iragarri genuen aurreko batean. Izen ematea ordea, aste honetan zabalduko da.

Estatuko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 30ean argitaratu zuten iragarkia, beraz izen-emate epea maiatzaren 31tik ekainaren 19ra, biak barne, izango da.

Informazio gehiago web orri honetan aurkituko duzue: www.usurbil.eus/eu/lan-eskaintza



Lan deialdi honetara aurkezteko epea ekainaren 19ra arte luzatuko da.

### 2017ko diru-laguntzak

Diru-laguntzen Batzordearen ebazpen proposamenari alegazioak aurkezteko epea ere, oraintsu zabaldu da.

2017ko diru-laguntzei dagokionez, ebazpen proposamena egin du Diru-laguntzen Batzordeak. Orain interesatuek 10 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

■ Epea: maiatzaren 31tik ekainaren 13ra, biak barne.

■ Iragarkia maiatzaren 30ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

■ Sailak: Kultura, Gizarte Zerbitzuak, Kirola, Ingurumena, Nekazaritza eta abeltzaintza.

■ Informazio gehiago: www.usurbil.eus/eu/iragarki-taula web orrian.

# 65 urtetik gorako herritarren iritzia jaso asmoz, Udalak inkesta bat jarri du martxan

Usurbilgo Udala inkesta bat egiten hasi da. Helburua, 65 urtetik gorako herritarrek Gizarte Zerbitzuen inguruan duten iritzia jasotzea. Inkestak 15 minutuko iraupena izango du eta anonimotasuna bermatuko dela nabarmendu dute udal ordezkariek.

Udalak abiarazi duen inkesta hau Aztiker enpresa ari da burutzen. “Horretarako, aipatutako adin tarte horretako 220 bizilagun zoriz aukeratuak izango dira lagin zientifikoa osatu eta beraien premiak eta proposamenak ezagutzeko”, udal iturriek aipatu digutenez. Ikerketa soziologiko hau maiatzaren 29an hasi zen eta ekainaren 10era bitartean luzatuko da.

*JONE URDANPILLETA*

***“Informazio hau biltzea beharrezkoa da, aurrera begira Udaletik bultza daitezkeen zerbitzuetan eta ekimenetan oso kontuan hartzeko eta datozen urteetan aurrera eraman daitezkeen proiektuak definitzerako orduan lagungarri izateko”***

### 15 minutuko galdetegiak

Usurbilgo adineko herritarrek etorkizunera begira bizimodua nola irudikatzen duten jakin nahi da, eta horretarako beren eguneroko martxan beharrezko dituzten zerbitzuak eta egitasmoak zein diren identifikatuko dira. Horrez gain, adineko herritarren egoera sozio-sanitario-emozionalaren berri jaso nahi da, bereziki egoera “bulnerableagoan” dauden pertsonena. Informazio hau batzea garrantzitsutzat jotzen du Udalak, “behar horiek asetzeko baliabideak eskaintze aldera”.

### 25 galdera

Udalak aditzera eman duenez, Aztikerreko inkestatzaileek beti beren gainean eramango dute inkestatzaile gisa identifikatzen dituen akreditazioa. Gutxi gora behera 25 galdera egingo dira eta elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egingo dira, elkarrizketatuaren nahiaren arabera.

## Ekainaren 10ean, Ikastola Egunean laguntzeko deialdia

Ekainaren 10eko herri bazkarian, prestaketa, zerbitzatze, jasotze edo garbiketa lanetarako laguntza behar dute. Izen emateko: Udarregi Ikastolako idazkaritzan, 943 361 216 telefono zenbakian edo emailez: usurbil@ikastola.eus

## Bi bertsopaper lehiaketa egingo dira aurtengo jaietan

Ohi bezala, 16 urtetik gorako usurbildarrentzako 41. Bertsopaper Lehiaketa antolatu da hilabete barru ospatuko diren jaien harira. Lanek 8-10 bertso artekoak eta inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

### LH 5 eta 6 mailakoei zuzenduriko txapelketa

Bestalde, estreinakoz, LH 5 eta 6 mailetako usurbildarrei zuzenduriko txapelketa ere antolatu dute Bota Punttubak eta Usurbilgo Udalak. Hiru gai jarri zaizkie aukeran eta horiei buruz idatzi beharko dute: Santixabelak, udako oporrak edo Usurbilgo txokoak. Bi bertso idatzi beharko ditu parte hartzaile bakoitzak.

### Ekainaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

Bi txapelketa hauetarako lanak ekainaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetan: Joxe Martin Sagardia plaza. Usurbil 20170. Egileak izengoitiz aurkeztu beharko du lana. “Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztuko dira”. Txapelketon sari banaketa, ekainaren 29ko jaietako bertso saioaren amaieran ospatuko da.

# Udalak ere Ramon Unanueren aldeko aitortzan parte hartuko du

Ekainaren 24an merezitako aitortza herritarra jasoko du, 2013ko azaroan zendutako Ramon Unanue Matxain herritarrak. Kirol munduan ibilbide oparoa jorratzeaz gain, kirol eta giza talde anitzekin eginiko lan itzelagatik omenduko da. Herritar talde bat, hilabete amaieran ospatuko den ekitaldia antolatzen dabiltza. Egun horri begira, erakunde adierazpen bat erregistratu zuten aurreko astean Usurbilgo Udalean. Astearte honetako osoko ohiko bilkuran onartzekoa zen udalbatza.

Erakunde adierazpen honek bat egiten du ekainaren 24an Unanueri egingo zaion aitortza herritarrarekin. Hala dio aipatu adierazpeneko lehen puntuak: "Ramon Unanue Matxaini aitortzea herriari eta herritarrei egindako borondatezko ekarpen aberats eta zabala, bai kirol arloan, bai kultur arloan, bai osasun arloan eta bai herria-herritarra bikoa ulertzeko moduan".



Udal adierazpen honek bat egiten du ekainaren 24an Ramon Unanueri egingo zaion aitortza herritarrarekin.

Udala ekimen honi sostengua eskaintzera konprometitzen da, eta baita omenaldian bertan parte hartzera ere. "Ekitaldiaren amaieran senideei aitortza hitzartzea egingo zaie. Herriaren eta Udalaren izenean, Alkateak hitz batzuen bidez Ramon Unanue Matxain jaunari ohorezko aitortza ofiziala egin diezaion eskatzen dugu, parte hartuko duten gainontzeko ordezkariekin batera".

**Ekainaren 24an omenaldia egingo zaio**

Zor zaion aitortza egin eta Ramon Unanue nor izan zen ezagutzera emateko antolatzen ari dira ekainaren 24ko omenaldia. Oparoa izan baitzen 1953an Kalezarren jaio eta hil aurreko 30 urteak Orion bizi izan zituen herritarraren ibilbidea eta Usurbil zein usurbildarrei eginiko ekarpena.

**Argazkiak biltzeko deia**

Bere omenez, hainbat kirol jardunaldi ospatuko dira hilaren 24an frontoiaren bueltan, eta aitortza herritarra egingo zaio ekitaldi baten bidez. Ekitaldioz gain, Ramon Unanueren argazki bilduma bat ere ikusgai jarri asmo dute antolatzaileek omenaldi egunean bertan. Irudi sorta aberaste aldera, Ramonen argazkirik izan eta erakusketarako utzi nahiko bazenu, antolatzaileek biziki eskertuko lukete. Argazkiak xmerre@gmail.com helbidera helarazi ditzakezue.

## Ekainaren 11n, Erratzu-Etxalar mendi irteera

■ Abiatzeko hitzordua: 07:30ean autobusez, Oiardotik.
■ Ibilbidea: Erratzu-Etxalar, 23 kilometro (Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko seigarren etapa).
■ Izen ematea: 10 euro, ekainaren 7a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:
Rural Kutxa:
3008 0259 1630 0543 0321.
Kutxabank:
2095 5069 0710 6848 9805.
■ Plaza mugatuak.
■ Janaria norberak eraman beharko du. Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.
-Derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.
■ Informazio gehiago:
andatza@hotmail.com
andatza.com

## Eskubaloioa, Gipuzkoako Eskolartekoa

**Ekainak 3, larunbata**

■ 09:30 Alebin neskak, finalerdia: Udarregi 6 (Usurbil)-Elgoibar Ikastola 6
■ 09:30 Alebin neskak, finalerdia: Txantxiku 6A (Oñati)-Aitor Ikastola (Donostia).
■ 11:00 Alebin mutilak, finalerdia: Udarregi 6 (Usurbil)-Hirukide (Tolosa).
■ 11:00 Alebin mutilak, finalerdia: Maria eta Jose (Zumaia)-La Salle (Donostia).

**Ekainak 4, igandea**

■ 10:00 Alebin neskak, finala: Lehen finalerdiko irabazlea-Bigarren finalerdiko irabazlea.
■ 11:30 Alebin mutilak, finala: Lehen finalerdiko irabazlea - Bigarren finalerdiko irabazlea.

## Usurbil KEren batzar orokorra

Ekainaren 16an 19:30ean Potxoenean. Gai zerrenda:
1-Lehendakariaren agurra.
2-2016-17 denboraldiko balantzea.
3-2017-18 denboraldirako aurreikuspenak.
4-Zuzendaritza Batzordearen eta bazkideen proposamenak (proposamenen bat egin nahi duen bazkideak usurbilke@gmail.com helbidera helarazi ekainaren 11 baino lehen).
5-Zuzendaritza batzordearen kargu uztea jakinaraztea 2017/06/30ean.
6-Zuzendaritza batzorde berria izendatzea, egoki bada, 2017/07/01etik aurrera jarduteko edo Zuzendaritza batzorde berririk ezean, Usurbil Kirol Elkartearen likidazio prozesua abian jartzea.
7-Galdera-eskaerak.

## Alebinen Gipuzkoako Txapelketa

Gipuzkoako alebin mutil zein nesken eskubaloi txapelketako azken fasea Oiardo Kiroldegian jokatuko da; finalerdiak ekainaren 3an eta finalak ekainaren 4an.

## Usurbil Cup, izen ematea ixtear

Ostiral honetan, ekainaren 2an itxiko du Usurbil F.T.-k irailean ospatuko den kirol ekimenerako izen ematea. Inskripzio orriak Oiardo Kiroldegian eskura daitezke, eta horiek beteta gero leku berean utzi beharko dira.

## Pilota Aginagan

**Ekainak 2 ostirala, 19:30:**

Gipuzkoako lau t'erdiko partidak. Pilotariak: Galarraga, Albeniz, Iruretagoiena.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisu bat salgai. 90 $m^2$. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 $m^2$, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 $m^2$ pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 $m^2$ (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 $m^2$ trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 $m^2$. 637 22 88 60

BOE-ko 79$m^2$ etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

### Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

120 metro$^2$ lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 $m^2$, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Sukaldari laguntzaile bat behar da jatetxe baterako. Gidatzeko karnetarekin eta kotxearekin. Tel. 680 483 164

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrak emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or-



**Urteaskuan Lur!**
Etxeko txikiak 6 urte beteko ditu ekainaren 1ean eta egun handia izango da gurean! Sei muxu handi familia osoaren partetik!

## Heriotzak

**Francisco Arrospide Iturralde**
71 urterekin hil zen maiatzaren 23an Usurbilen



**Ernesto Alfonso Barbero De Ana**
88 urterekin hil zen maiatzaren 23an Usurbilen



**Ander Bruño Azpiroz**
57 urterekin hil zen maiatzaren 28an Aginagan



**OHARRA:** 2017ko ekainaren 9an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: ekainaren 5ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

duka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

**BESTELAKOAK**

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituena. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Kutxabank | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Ekainak 01 - ekainak 11

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 01 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Ostirala** | 02 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Larunbata** | 03 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Igandea** | 04 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Astelehena** | 05 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteartea** | 06 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Asteazkena** | 07 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Osteguna** | 08 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 09 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 10 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Igandea** | 11 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda ekaina

## 02 ostirala

- **Tomaxen abenturak: "Hiru ipuin".** 17:00etan Santueneko frontoian.
- **Erakusketa Artzabalen.** Inner Galaktiken margolanak.

## 03 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa.** "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak", Aitor Etxeandiaren eskutik. 09:00-13:00, Potxoenean.
- **Erakusketa Artzabalen.** Inner Galaktiken margolanak.

## 04 igandea

- **Erakusketa Artzabalen.** Inner Galaktiken margolanak.

# Tomaxen abentura berriak, ostiral honetan Santuenean

Lau urtetik gorakoentzako pailazoen emanaldia antolatu dute Santueneko frontoian, ostiral honetan 17:00etan. Ondoren txokolate jana izango da. Tomaxen abentura berriak eskainiko dira bertan; "Hiru ipuin" emanaldia. "Muxugorrik Tomax liburutegira joateko konbentzituko du, han, ipuinekin antzerkiak sortuko dituztelako. Beraz, *Txanogorritxo, Hiru Txerritxo edota Hamelingo txirularia,* bere erara antzeztuko dute".



**17:00etan Santueneko frontoian.**

## Inner Galaktik-en margoak Artzabalen ikusgai

Inner Galaktik ezizenarekin lan egiten duen Sara Kovacic Esloveniako artistaren lan bilduma ezagutzeko aukera izango dugu Artzabalen hilabetez, ekainaren 22ra arte.



**Esloveniako artista, erakusketa zabaldu berritan.**

## Sagastien udako kimaketari buruzko ikastaroa

Larunbat honetan Potxoenean, 9:00etik 13:00era. Aitor Etxeandiaren eskutik. Gaitzak eta izurriteak ere hartuko ditu hizpide. Izen ematea: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com



**Larunbat honetan, Aitor Etxeandiaren eskutik.**

## Datozenak

### LH-ko bertso jaialdia Udarregi ikastolan

Ekainaren 5ean astelehena, arratsaldeko 17:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

### Zumarteko eraikinari agur festa

Musika Eskolaren egoitza izan dena berritzen hastera doazela eta, lekuz aldatuko dira Zumartekoak datorren ikasturtean. Aurretik, Usurbilgo musika eta musikarien etxea izan denari merezitako agur festa antolatu diote:

**Ekainak 12, astelehena**

- 18:30 Organo kontzertua Salbatore Elizan.

**Ekainak 17, larunbata**

- 10:00 Txistulari eta trikitilari-panderojoleak kalejiran.

**Musika Eskolaren bueltan:**

- 11:00-13:30 Kontzertuak.
- Eguerdian, bazkari girotua.
- 16:00-20:00 Kontzertuak.
- Egunean zehar, erakustaldi eta tailer bereziak, Zumarteko eraikinaren barruan.
- 20:00 Kalejira txarangarekin Usurbilgo kaleetan zehar.
- 21:30 Afari herrikoia.
- Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.





# GERTU




## EKAINA

Hilabete osoan %10 arterainoko deskontuak GERTU txartelarekin

hurbilago



















Estetika gidan parte hartzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus